

## EUSKARAZKO BIBLIEN HISTORIAZ

*Donostia, 1994.06.29*

*Joseba Intxausti*

### **ELIZEN ARTEKO BIBLIA-REN ARGITALPENA DELA-TA**

1994eko ekainaren 3an, Donostiako Miramar Jauregian Biblia osoaren elizarteko lehenengo euskal itzulpenaren aurkezpena egin da (1). Horrela, XVI. mendetik datorkigun itzulpen elizbakarren aroari —Leizarraga kalbindarrarekin hasi eta Olabide edo Kerexeta katolikoekin burutu zaigunari— elizarteko lankidetzaren honekin eman zaio gailur ederra (2). Gertakari honen garrantziaz jabetuta, zera diote argitaratzaileek berek:

“Ez da hau euskarazko lehen Biblia; hala ere, ziur gaude beronen argitalpena aparteko esanahia duen gertaera erlijioso eta kulturala dela; hain zuzen ere, hau dugu lehenengo aldia, Biblia osoa hebraieraz eta grekoz idatziak dauden jatorrizko testuetatik euskara batura itzulia ematen denekoa, Eliza katolikoaren eta Eliza protestanteen arteko lankidetzaren anaikorrean egina” (IX. or.).

Hor adierazi diren ezaugarri berriengatik (elizartekoa da, euskara batuan emana), gure Biblien historian leku berezia dagokio itzulpen honi, eta ongi etorriko da geroko ikertzaileei zenbait datu bilduta uztea. Honelako beste lanen historiak ezagutzeko albiste-urritasun nekagarrikeria ere nozitu duenak, jakin, badaki zein aringarria izan litekeen berriemate

---

(1) Argitalpenaren aurkezpenerako deia, Euskal Elizbarrutietako Gotzainek eta Bibli Elkarte Batuetako ordezkariak egin zuten. Aurkezpen-mahairako deialdian iragarritakoak: J. M. Rementeria, D. Amundarain, C. Buzzetti, J.L. Andavert, J. de Waard, M. Luna eta J.M. Setien. (Baina J. de Waard ez zen aurkezpenean egon, beronen ordeiz I. Mendoza egon zen).

(2) (1994): *Elizen arteko Biblia*. Lazkao/Donostia: Bibli Elkarte Batuak/Euskal Elizbarrutiak. (ik. VI. orrialdean argitaratzaileen xehetasun guztiak). Atarikoak: I-XXIII or.; Itun Zaharra: 1.478 or.; Itun Berria eta Osagarriak: 514 or.; 9 mapa eta plano, koloretan. (Osagarrien artean zera sartu da [415-514. or.]: “Bibli hiztegia”, “Aurkibide analitikoa”, “Euskalkien arteko hiztegia”, “Taula kronologikoa” eta “Leku-izenen aurkibidea [mapak]”).— Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Akitaniako Lurralde Kontseiluaren dirulaguntzak jaso ditu argitalpen honek. Edizioa: 15.000 aletarako asmoa (lehen ekinaldian, 7.100). Salneurria: 1.854 pta.

xehe bat eskura izatea. Nork ez luke ongi ordainduko gaur, adibidez, Leizarragaren lan-egunkariaren bat eskuetan izatea? Ondoko lerroen bidez, ba, *Elizen arteko Biblia* honen itzulpenaren lan-oroimena gordetzen lagundu nahiko litzateke. Horixe, eta besterik ez, inolako kritika-zereginetara pasatu gabe.

Beste hizkuntza askotan bezala, gurean ere euskal prosaren lehen urrats literarioak Bibliaren itzulpen baten arrastoan etorri zaizkigu (Leizarraga: *Testamentu Berria*, 1571). “Ez da hau euskarazko lehen Biblia” esan digute azkeneko beste horren argitaratzaileek, eta egoki izango da lehenagoko itzulpenen egileak gogoratzea: Duvoisin (Londres, 1859-1865), Uriarte (Londres, 1859-1868: partez bakarrik argitaratua), Olabide (Bilbo, 1958) eta Kerexeta (Bilbo, 1976, 1993).

Euskarazko liburuaren katalogo historikoetan Bibliaren edo beronen atalen euskal itzulpenek leku duin bat izan dute beti (3), eta azken urteetan han-hemenka izan da itzulpen horien historia orokorki azaldu digunik (4). Ez naiz, ba, historia orokor hori errepikatzen hasiko.

Bestalde, ikerlan monografikoagorik ere egon da, Leizarraga, Duvoisin eta abarri buruz (5). Aldizkari honetan bertan ikus liteke euskal Bibliari buruzko zenbait ikerlan edo berriemate (Etxezarreta 1981). Ondoko orrialde hauetan, monografia horien bidetik joango naiz, euskaraz argitarara eman den Biblia osoaren laugarren argitalpenaren historia hurbila jasotzeko asmoz.

---

(3) VINSON, J. (1983): *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. Bilbo: C. de Ahorros Vizcaina. (1891ko edizioaren faksimila). Ik. “Table méthodique” delakoan “Bible et Nouveau-Testament” (454-455). XX. mendekoaz, oster: TORREALDAI NABEA, J.M. (1993): *XX. Mendeko euskal liburuaren katalogoa (1900-1992)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 189-193 (035 epigrafea). Beste zentzu batean Bonaparteren argitalpen eta eskuizkribuek ere badute interesik franko gure hizkuntza idatziaren historian (eta dialektologian), Bibliari eman izan zaion leku ezagutzeko: GONZALEZ ECHEGARAY, C.; ARANA MARTIJA, J.A. (1989): *Catálogo de los manuscritos reunidos por el Príncipe Luis-Luciano Bonaparte*. Bilbo: Euskaltzaindia. Eta inprimatuen artean: BONAPARTE, L.-L. (1991): *Opera Omnia Vasconice*. Bilbo: Euskaltzaindia (4 lib.). Bonaparteren eskuizkribuetan geratu zitzaizkigun lanen argitalpena, in.: PAGOLA, R.M. ; GONZALEZ, S.; IRIBAR, I.; IRIBAR, J.J.; MALLONA, A. (1992): *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. (Bizkaiera, 3. lib.). PAGOLA, R.M. ; BEOLA, A.; IRIBAR, I.; IRIBAR, J.J. (1993): *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. (Gipuzkera, 6. lib.). Batzere haren daude bilduta Uriarte-ren lanak.

(4) (1978): “Biblia”, in: EGIPV. Donostia: Auñamendi. AKESOLO, L. (1989): “Euskera eta Biblia”, in: *Idazlan guztiak*. Larrea-Zornotza: Karmel. II, 823-903. LAFITTE, P. (1958): “Biblea Eskual Herrian”, in: *Euzko-Gogoa*. 9, 1958, 495-501. SAN MARTIN, J. (1981): “La Biblia en euskara”, in: *BRSBAP*. XXXVII, 1981, 602-608. ZABALETA, J. M. (1988): “Biblia itzulpena Euskal Herrian. Historia apur bat”, in: *Senez*. IV, 1988, 51-92. (Argibide osagarriak: ib., 165-170; 171-178).

(5) Adibideak aski ugariak dira: Lafont, Lafitte eta Ruiz Arzalluz-ek Leizarragari eskainiak, Orixe eta Altuna-k Olabideri, X. Mendiguren eta Akesolok Duvoisini, etab.

Hemen hizpide dugun elizarteko itzulpen-asmoaren inguruan zenbait bilera eta harreman izan ondoren (6) lanari ekin zitzaionetik hamaazapi urte bete dira (7): hain zuzen ere, 1977an, Arantzazun egindako mintegi baten ondoren, eman zitzaion Dionisio Amundarain-i lantaldearen bateragile-lana. Gerora erabakiorra gertatuko zen hori. Irizpide nagusienak ere onartuta geratu ziren orduan: a) Itzulpenak biblilarien eskutik joan beharko zuen, eta jatorrizko hizkuntzetatik egingo zen (8), eta b) Euskal hizkera berrikusteko euskalki eta Eliza desberdinetako lankideek izan beharko zuten tartean (9).

*Elizen arteko Biblia*-ren testua bi epealdi nagusitan landu da: a) Lehenengoan, Itun Berriaren itzulpena egin da (1977-1983), eta b) Bigarrenean, Itun Zaharra itzultzeaz gain aurreko epealdian eginiko IBren itzulpena berrikusi eta berregokitu da (1986-1993). Bi une horien historia deskribatuko da, ba, hemen.

## 1. ITUN BERRIAREN ITZULPENA (1977-1983)

Hiru lanalditan egin zen Itun Berriaren itzulpena, une bakoitzean lankide eta zeregin desberdinekin. Hona urrats nagusi horiek: a) Oinarrizko lehen itzulpena. b) Testu itzuliaren bateratze-lana. c) Testuaren berrikusketa, eta d) Elizarteko kontsultak eta edizio-ardurak (10).

(6) *Jakin* taldeko Agirrebaltzategik eta bestek, D. Amundarain-ek eta abarrek, argitartetxe berean lehendik izandako bi esperientziari —oraingoa, euskara estandar baten bidetik— segida emateko asmoa ere izan da elizarteko Biblia honena (gogoan izan Goitia-Mendizabal-en *Lau Ebanjelioak*, 1961; Nimegako Katekesi Institutuaren *Kristau Bidea*, 1975).

(7) Dionisio Amundarain-i zor dizkiot bukatu den lan honi buruzko albisteak. Eskerrik asko lantaldearen paperak eskuzabalki pasa dizkidalako. Zenbait xehetasun E. Etxezarreta, J. Apezetxea eta abarri eskatu diet. Guztioi eskerrak. Irakurle interesatuak taldeko bi lankideren berriemateak ikusi besterik ez du, hemengo aipu laburra osatzeko: AMUNDARAIN, D. (1988): "Elizen arteko Bibliaren itzulpen taldea", in: *Senex*. IV, 1988, 97-109. OLAIZOLA, J.M. (1992): "Elizen arteko Biblia euskara batuan", in: *Plazara*. VIII, 1992, 19. z., 6-8. (Irungo Udala). *Elizen arteko Biblia* honen itzulpen-historia xehea ezagutzeko, aurkezpen egunean izandako hitzaldien argitalpena izango du laster irakurleak (eta historilariak gerora, baita Amundarain-en argitaragabeko lan-egunkaria ere).

(8) Itun Berriaren lehen itzulpenean (1977-1983), ondoko beronen berrikusketa gutzietan (1986-1993) eta Itun Zahararen itzulpenean erabilitako abia-testuak zerak izan dira: Itun Zaharrerako: (1967-1977): *Biblia hebraica Stuttgartensia*. Stuttgart.— Itun Zaharreko liburu deuterokanonikoetarako: (1931-....): *Septuaginta, Vetus Testamentum Graecum*. Göttingen. Eta: (1965): *Septuaginta*. Stuttgart.— Itun Berrirako: (1975): *The Greek NT*. Stuttgart. Hauen ondoan, lagungarri, Bibliaren itzulpen moderno eta landuenak egon dira, noski.

(9) Itun Berrirako lehen ekinaldian 16 lagun bildu ziren, exegeta, itzultzaile eta berrikusleen artean (1978ko urtarrilean).

(10) D. Amundarain-en 1983-11-29ko berriemate batean ageri dira hemen jasoko ditugun xehetasunak.

a) Oinarrizko itzulpenerako Bibli liburuetako itzulkizunen banaketa zehatza egin zen sei lankide-multzoren artean, beti ere bakoitzean exegeta eta euskal idazleak elkarrekin lanean jarriz (11).

### Itun Berriaren exegeta-itzultzaileak (1977-1983)

Lankideak	Ardura	Itzulitakoak
Pedro Nuñez Jesus M. Arrieta Dionisio Amundarain	Exegesia Euskara Euskara	Jn, 1 Jn, 2 Jn, 3 Jn, Ap
Kasimiro Pérez Mikel Plaza*	Exegesia Euskara	Erm, 1 Ko, 2 Ko, Ga, 1 Ts, 2 Ts
Kasimiso Pérez Jose L. Aperribai	Exegesia** Euskara	1 Tm, 2 Tm, Tt, Flm
Ramon Irizar Jose Arregi	Exegesia*** Euskara	Mt, Mk eta Lk, Eg
Jose Goitia Jose A. Gandarias	Exegesia Euskara****	Heb, St, 1 P, 2 P, Ju
Joan Apezetxea Jesus M. Arrieta	Exegeta Euskara	Kol, Flp, Ef

\* Arraiozko Erretorea: 1984-11-22an hil zen. Goian bego.— \*\* Hasieran J.A. Pagola ere tartean zen, baina Bikario Nagusi izendatzean, utzi egin behar izan zuen taldea.— \*\*\* J.L. Elortzak lan-arrazoiengatik utzi egin behar izan zuen taldea.— \*\*\*\* Hasiera batean, F. Mendizabalek ere parte hartu zuen.

Ikus daitekeenez, exegeta bakoitzari bere eremu berezituagoa eman zitzaion: San Joan-enak Núñez-i, Ebanjelio sinoptikoak Irizar-i, etab (12). Exegeta eta euskalarion talde-lana hainbat irakurle hautaturen eskutara pasatu zen, gainera, bateratze-lanetan hasi aurretik.

(11) Koordinatzailearen artxibotik jasotako datuak.

(12) Datu osagarri bezala: P. Nuñez, sakramentinoa da; J. L. Aperribai eta J.M. Arrieta (Donostia), J. Apezetxea eta M. Plaza (Iruñea), Elizbarrutietako apaizak; D. Amundarain, Lazkaoko beneditarra; R. Irizar, J. Goitia, J. A. Gandarias eta J. Arregi, frantziskotarrak; K. Pérez (Felipe Hondarribikoa), kaputxinoa.

b) Bateratze-lana izan zen bigarren lanaldia: talde finko baten inguruan burutu zen Itun Berriko oinarrizko itzulpen guztien bateratzea, eta unean uneko itzulkizunari zegokion lankide-multzoaren ordezkari bat bildu izan zen bateratze-talde finkora (13). Berriz ere irakurle hautatuiei luzatu zitzaizen bateratutako testua, Itun Berriko testu honi beren ohar-  
 rrek egin ziezazkioten.

c) Berrikusketak-lana izan da testu-prestakuntzaren azken lanaldia: aurreko talde bateratzailearen emaitzaren gain egin zen lan, testuaren estiloa berrikusiz, testu paraleloak alderatu nahiz adostuz, etab. Iharduera hau sei lagunengain joan zen (14). Horrela, azkenik, 1983ko lehen hilabeteetan burututa zegoen Itun Berriaren itzulpena, moldiztegirako prest.

d) Elizarteko lankidetzak eta edizioaren ardura: Elizarteko exegesi-lankidetzak, bileratan eta horretarako kontsulten bidez bete zen (15). Setien Donostiako Gotzain jaunarekin Bibli Elkarte Batuko De Waard eta I. Mendozak, eta Olaizola eta Amundarain-ek egindako bileran eratu zen edizio-aurrezpenetarako batzordea (16). Data berean, moldiztegitik lan teknikoaren ardura Bibli Elkarte Batuko Erwin Zimmermann-en eta D. Amundarain koordinatzailearen eskuetan geratu zen.

Horrela, irten zitekeen, ba, egun-argitara lan bukatu berria: 1984ean jarri zen lehen edizioa kalean (1983ko Lege-gordailuarekin) (17), eta behala etorri zen bigarren edizioa ere: 1987 (18).

---

(13) Talde finko bateratzaileko lagunak hauek izan ziren: D. Amundarain (koordinatzailea), K. Pérez (exegeta), J.M. Arrieta eta J. Arregi (gipuzkera), J.M. Rementeria (bizkaiera), eta Iparraldeari begira, P. Andiazabal lehenik (lapurtera) eta M. Plaza baztandarra gero. Lanaldi honetako iharduera bereziki nekosotzat jo izan da, hasierakoa zelako, noski, eta artean, lan-irizpideak helduegiak ez zeudelako ere bai.

(14) D. Amundarain, K. Pérez, J.M. Arrieta, J. Arregi, M. Plaza eta J.M. Rementeria.

(15) Adibidez, Lazkaon 1981ko otsailean egindako lan-biltzarra: D. Amundarain koordinatzailearekin Artzain protestante hauek lan egin zuten: I. Mendoza (Bibli Elkarte Batuen ordezkaria Madrilen), J.M. Olaizola (Donostiako Artzaina) eta J. García (Bilbon Artzaina). Bigarren bileran, I. Mendoza, Jan de Waard (Bibli Elkarte Batuen ordezkaria Europan), J.M. Olaizola Artzaina eta D. Amundarain bildu ziren Donostian, argitalpenari ekin aurretik (1982-03-23). De Waard-ek, protestanteen aldetik, eragozpenik gabe aurrera egin zitekeela uste izan zuen.

(16) Batzordekideak: J.M. Olaizola eta I. Mendiguren (ebanjelikoak), J.A. Pagola eta D. Amundarain (katolikoak).

(17) (1984): *Itun Berria. Elizen arteko Biblia*. Lazkao: Pax. 680 or. 4.159 ale. Lazkaoko beneditarren artean eman zen, beraz, argitara, izan ere itzultzaileek nortasun juridikorik ez zuten, Bibli Elkarte Batuak ere ongi ikusi baitzuen horrelaxe egitea.

(18) 3.183 aletako edizioa: zuzenketa ugari egin zitzaion aurreko argitalpenari.

## 2. BIBLIA OSOAREN (BIR)PRESTAKUNTZA (1986-1993)

“(Bir)prestakuntza” diogu, zeren, esan bezala, bi lan-molde egin baitira lanen bigarren epealdi honetan (1986-1993): a) Itun Zaharraren itzulpena, eta b) 1983an argiratutako *Itun Berria. Elizen arteko Biblia*-ren testu-berrikusketa (19). Horretaz berri ematen hasi aurretik, ordea, ongi etorriko da hau dena samurtu duen inguru bibliko-instituzionalari buruz zerbaite esatea.

### 2.1. Elizarteko lankidetzarako egokiera

Euskal Herria ez da geratu azken hamarkadetakoa mugimendu bibliotikotik baztertuta edo urrundurik. Besteak beste (Liturgi testuak ditugu gogoan), izan ere hemen bere historia idazten diogun Bibli edizio honetatik aparte, izan dugu euskaraz bide hori urratu duen kideko argitalpenik. Eta arrakasta nabarmenarekin, gainera: sei ediziotaraino iritsi da Elizbarruti Arteko Liturgi Euskaratzailearen Taldeak prestatutako *Itun Berria* (1980-1993) (20), eta hor dago J. Kerexeta-ren bizkaierazko lan ugari eta, guztien gaineratik, beraren *Euskal-Biblia*, bi edizioekin (1976, 1993) (21).

Hortaz, euskarazko Biblia itzulpen katolikoaren munduan zuzperraldi nabaria izan da, egindako itzulpenetan ezezik, berauen edizio-hedapenean ere. Vatikanoko II.aren Liturgi herritartzeak (22) eta katolikoaren hizkuntza politika ofizial berriak zerikusi zuzena izan dute horretan (23).

Baina Eliza katolikoaren lege eta aldakuntza praktikoa orokorren ondoan zuzenago elizarteko Bibliaren itzulpenak errazteko pausorik ere eman da elizen erakundeetatik, protestanteen artean noski, baina baita

(19) *Elizen arteko Biblia* 1994: XI.lean zera esaten da: “lehen argitalpeneko Itun Berriari berritu sakona eman zaio, liburu guztiari batasuna eman beharrak eraginda”.

(20) (1980): *Itun Berria*. Donostia: Idatz. Ondoko argitaraldiak: 1984, 1988, 1989, 1991, 1993. ETXEZARRETA, E. (1981): “Euskal Elizbarrutiarteko *Itun Berria*”, in: *Euskera*. XXVI, 1981, 199-217. ETXEZARRETA, E. (1988): “Liturgiako Itzulpen Batzordearen *Itun Berria*”, in: *Senez*. IV, 1988, 111-129.

(21) KEREXETA, J. (1976): *Euskal-Biblia*. Bilbo: Ed. Belgas. Gainerakoen xehetasunak: Torrealdai Nabea 1993: 189-193.

(22) VATICANO II (1962): *Constitución «Sacrosantum Concilium» sobre la Sagrada Liturgia*, in: VATICANO II (1967): *Historia, doctrina, documentos*. Barcelona: Editorial Regina. (Hizkuntzarekikoak: 69, 224, 225, 245-247: 37-40.z.).

(23) PARDO, A. (1992): *Enchiridion. Documentación litúrgica posconciliar*. Barcelona: Editorial Regina. BUGNINI, A. (1983): *La riforma litúrgica (1948-1975)*. Roma: CLV-Edizioni Liturgiche. (Hizkuntzari buruzkoak: 34-36, 45-46, 69-70, 108-121).

orain gutxi arte egiteko hori zailago onartzen zuten katolikoan artean ere (24).

Horren ondorioz, itzulpen-lan hauetarako elizarteko jokabide instituzionala finkatua geratu zen 1968an, eta birretsia, 1987an, Kristau Batasunerako Idazkaritza Katolikoak eta Bibli Elkarte Batuek —erakunde protestantea berau— elkarrekin batera onarturiko arauetan (25). Lanerako arau horien ildotik joan da, geroztik, hainbat hizkuntzatako itzulpen moderno, eta sortutako eredu berriok (26) gogoan hartu ahal izan ditu elizarteko euskal taldeak ere.

Egokiera ofizial horrek ez zuen, ba (are gutxiago, elizarteko Itun Berriaren ondoren: 1984), hurrengo egitekoari ekitea batere eragotzi, lagundu baizik. Bestalde, Bibliaren gaurkotasun erlijioso-kultural eta editoriala —betiere, gaurkotasun erlatiboa, noski— eta prezeskiago, elizarteko Itun Berriari egin zitzaion harrera ona ikusita lanari segida zor zitzaion.

## 2.2. Elizen arteko Biblia: lehen erabakiak

1983az geroztik lankidegoa geldi baina lanean jarraitzeko prest zegoela jakinik, Itun Zaharraren itzulpenari heltzea pentsatu zuen Itun Berriari ihardundako elizarteko lantaldeak. Oraingoan katoliko-protestanteek Euskal Herritik bertotik egin zioten lankidetzarako deia Bibli Elkarte Batuari (27).

1986ko maiatzaren 2ko bileran baiezko erabakia hartu zen, besteak beste J. de Waard eta T. Hartberg protestanteak tartean zirela. Lana bideratzeko lehenengo mintegia Lazkaon bildu zen, J. de Waard eta C. Buzzetti gidari zirela (1986-09-2/5): bi exegeta, bost itzultzaile (gero, batetik ez zuen jarraitzerik izan), hiru berrikusle eta koordinatzaile bat izan

---

(24) FESQUET, H. (1967): *Diario del Concilio*. Barcelona: Editorial Nova Terra. (aurkibideetan: 1296-97. or.: ikus frantses eta gaztelaniako itzulpen ekumenikoen lehen pausok: 1.025 eta 1.185. or.).

(25) Lehen akordioaren izenburua: "Directivas para la cooperación de miembros de diversas confesiones en la traducción de la Biblia". United Bible Societies/Secretariat for Promoting Christian Unity-k izenburu honekin eman zuten: "Guiding Principles for Inter-confessional Cooperation in Translating the Bible. (June 1968). 1978ko akordio birretsia: "Normas para la cooperación interconfesional en la traducción de la Biblia". Roma: Tipografía Poliglota Vaticana.

(26) *Parola del Signore*, esate baterako, Itun Zaharraren itzulpenean eta Itun Berria berrikustean.

(27) 1986ko apirilaren 6ko gutuna.

ziren mintegian (28). Bukaeran, Itun Zaharraren itzulpenari ordutik bertatik heltzea erabaki zen.

Ondoko lan-urteetan astebeteko bina mintegi egin izan ziren, uda-neguetan (29). 1986ko abendutik aurrera Carlo Buzzetti izango zen euskal itzulpen honetarako Bibli Elkarteen ordezkari-aholkularia.

### 2.3. Exegeta- eta itzultzaile-taldea: Lan-banaketa

Hortik aurrera, aro berria ireki zen itzulpengintza honetan: Ordura arteko esperientzia gogoan izanik (30), talde mugatuago baten inguruan jarri zen egitekoaren ardatza.

Taldea hauek osatu zuten: bi exegeta itzultzaile (31), bost itzultzaile (32), hiru berrikusle (33) eta hainbat irakurle hautatu (34). Guztiaren koordinatzaile eta eragile nekazina —berdin Itun Zahar nahiz Berrian— Dionisio Amundarain gertatu zen berriz ere. Bibli Elkarte Batuetatik behatzaile eta teknikari bezala lau lagun izan dira, bereziki lanen segimendua egiten (35).

Lankideen egitekoak honela banatu ziren, oraingoan (36):

---

(28) Exegetak: K. Pérez eta R. Irizar; itzultzaileak: J.M. Arrieta, J.L. Aperribai, E. Zabala, I. Mendiguren eta J. Otaegi (gero jarraitzerik izan ez zuena azken hau); berrikusleak: J.M. Rementeria, L. Zugazaga, J.M. Olaizola; koordinatzailea: D. Amundarain. (J. Arregi-k ez zuen bilerara etortzerik izan).

(29) D. Amundarain-ek utziriko albisteak: “Traducción de la Biblia al euskara. Algunos datos” deritzanean.

(30) Itun Berriaren lehen itzulpen-taldeko batek zera idatzi zuen: “Itun Berria itzul-tzean, lan-iharduera oso astuna izan zen: lankide askoko bilera asko egin beharra. Itun Zaharrari ekitean, lan-iharduera arindu egin nahi izan zen, emaitzaren kalitateak ezer ez nozitzeko moduan, ordea”.

(31) Ramon Irizar eta Kasimiro Pérez (Felipe Hondarribikoa).

(32) J.L. Aperribai, J.M. Arrieta, J. Arregi, I. Mendiguren eta E. Zabala.

(33) J.M. Rementeria, L. Zugazaga (azken hau liburu batean itzultzaile, gainera), J.M. Olaizola.

(34) M. eta B. Amundarain, M.K. Iturriotz, M.J. Zubiarrain, J.M. Sarasua, J. Azpillaga. Horienaren ondoan, batez ere Donapaleuko J.J. Iturriotz eta P. Erdozaintzi-rena azpimarra daiteke: lehenik, beren iharduera pertsonalagatik eta gero, Iturriotz-en gutun baten arabera (1993-03-03), inguruan bildutako hamalau lagunetako taldean egindakoagatik.

(35) J. de Waard, J.L. Andavert, T. Hartberg eta C. Buzzetti.

(36) Ondoko laukietan doazen zertzeladak D. Amundarain-en “*Elizen arteko Biblia. Lan-iharduera eta itzultzaileak*” deritzan txostenetik bildu ditugu (1994-06-27an jasoa).



**Itun Zaharraren exegeta-itzultzaileak (1986-1993)**

<b>Lankideak</b>	<b>Ardura berezia</b>	<b>Itzulitakoak</b>	<b>Orrialdeak*</b>
Irizar, Ramon Arregi, Jose	Exegesia Euskara	Sal, Is, Ab, Ag, Hab, MI, So, Os, JI, Jon, Nk	308
Irizar, Ramon Zabala, Enrike	Exegesia Euskara	Jr, Ba, Jr gt, Dn gr, Dn, Mi, Na, Esd, Ne	243
Irizar, Ramon Mendiguren, Iñaki	Exegesia Euskara	Jb, Ez, Jkd, Si, Es	313
Irizar, Ramon Aperribai, Jose L.	Exegesia Euskara	Has, Ir, Zen, Lb, Dt, Rt*	358
Irizar, Ramon Arrieta, Jesus M.	Exegesia Euskara	Jos	45
Irizar, Ramon Otaegi, J.	Exegesia Euskara	Am	13
Irizar, Ramon	Exeg./ Euskara	Kant. Ederrena	11
Irizar, Ramon Zugazaga, Lorentzo	Exegeta Euskara	Za	18
Pérez, Kasimiro Arrieta, Jesus M.	Exegeta Euskara	Ep, 1 M, 2 M, Est, Est gr, Tb, Jdt, 1 Kro, 2 Kro, 1 Erg, 2 Erg, Koh, 1 Sm, 2 Sm	615
		Orotara (orr. originalak) ...	<b>1.924</b>

\* Orrialdeak, itzultzailearen jatorrizko lanaren arabera ematen dira (ez edizioaren arabera)

**Itun Berriaren itzulpen-berriztazaileak (1986-1993)\***

Lankideak	Itzulitakoak	Orrialdeak
Arregi, Jose	Mt, Mk, Lk, Eg	432
Mendiguren, Iñaki	Jn, 1 Jn, 2 Jn, 3 Jn, Ap	174
Arrieta, Jesus Mari	Erm, 1 Ko, 2 Ko, Ga	135
Aperribai, Jose Luis	Ef, Flp, Kol, 1 Ts, 2 Ts, 1 Tm, 2 Tm, Tt, Flm	83
Zabala, Enrike	Heb, St, 1 P, 2 P, Ju	70
	Orotara (orr. originalak) ...	<b>894</b>

\* Ikus, ondoko testuan, exegesiari eta bigarren lanaldi honetako IBko exegetari buruz dioguna

Biblia osoaren edizioko Itun Berriaren berriztapenean exegeta bakar batek egin zuen lan (K. Pérez gaixorik gertatu zelako): Ramon Irizar-ek. Bestalde, elizbarruti edo erlijioso-elkarte desberdinetako lankideak bildu dira Bibliaren itzulpen hau burutu ahal izateko, eta datuak izan lezake interes sozio-kulturalik, bereziki bakoitzak ekarri duen euskalkia edo lan-zama gogoan har badadi (37).

Bibliaren ediziorik soilduenean ere, egitekoa ez da bukatzen testuen itzulpen hutsean. Biblia edizioak hainbat lagungarri-osagarritz hornituta egin ohi dira, eta euskarazko honetan ere halaxe gertatu da. Sinatugabeko lan horietako autoretzak hauek dira (38):

---

(37) Arestian esandakoak osatuz: D. Amundarain, beneditarra da (itsasondoarra); R. Irizar, frantziskotarra (oñatiarra); K. Pérez, kaputxinoa (hondarribiarra); E. Zabala, beneditarra (abaltzisketarra); J.M. Arrieta, Elizbarrutiko apaiza (donostiarra); J. Otaegi, sakramentinoa (lasartearra); L. Zugazaga, Elizbarrutiko apaiza (durangarra), J.L. Aperribai, Elizbarrutiko apaiza (bergararra); J. Arregi, frantziskotarra (azpeitiarra), eta I. Mendiguren, ebanjelikoa (ezkiotarra).

(38) AMUNDARAIN, D. (1994): *“Elizen arteko Biblia. Lan-iharduera eta itzultzaileak”* txostena.

**Hornidura kritikoa eta testu lagungarriak**

<b>Egilea</b>	<b>Idazlana</b>
Amundarain, Dionisio	"Aurkezpena" (XI-XII. or.) "Irakurlearentzat argibide teknikoak (XXI-XXIII.or.) "Aurkibide analitikoa" (oinarrizko zerrenda) "Euskalkien arteko hiztegia" ( <i>cf. infra</i> )
Irizar, Ramon	"Bibliari sarrera orokorra" (XIII-XIV. or.) "Itun Zaharra. Sarrera" (3-7. or.) "Itun Berria. Sarrera" (3-5. or.) IBren hornidura kritikoaren birmoldaketa "Bibli hiztegia" (417-452. orr. Lehengo IB-koaz baliatuz) "Leku-izenen aurkibidea" (509-514. or.; <i>cf. infra</i> )
Zabala, Enrike	"Aurkibide analitikoa" (zehaztapen-erreferentziak)
Donapaleuko taldea, Rementeria-Zugazaga	"Euskalkien arteko hiztegia" (481-500. or.; <i>cf. supra</i> )
Mendiguren, Iñaki	"Taula kronologikoa" (501-507. or.) "Leku-izenen aurkibidea (Mapak)" (509-514. or.)
Oinarrizko itzultzaileak	Liburu bakoitzari sarrera Liburu bakoitzari oharrak eta erreferentziak

**2.4. Bigarren aroko lan-prozedurak**

Talde horrek ez du jardun lanean lantegi jakin batean iraunkorki horretarako elkartuta, eta lankideek ez dute ogibidez horretan jarduterik izan (39). Bibliako liburu hain desberdinetan eta horrelako lankidego za-

(39) Salbuespen nabariena R. Irizar-ena izan da, eta denbora mugatuagoan K. Pérez-ena eta, oro har, exegetena. Beste gisa batean, D. Amundarain koordinatzailearena.

bal horrekin lan egin ahal izateko premiazkoa izan da lan-antolamendu eta itzulpenen iharduera egokiak eratzea (40).

Koordinatzailearen eskutik jasotako ohar-albiste honek laburtzen du honetan egin den bidea nondik norakoa izan den:

Itun Berriaren kasuan bezala, lehenik exegeta eta itultzaileekin bikoteak egin dira liburu diferenteen oinarrizko itzulpena prestatzeko; beraz, exegeta baktek oinarrizko talde ezberdinetan egin behar izan du lan.

Oinarrizko itzulpena prestatzean, testua koordinatzaileak hartzen zuen. Batzuetan taldeko guztiei helarazten zien testua; beste batzuetan, berak egindako zuzenketa-saila proposatuz, oinarrizko taldeari itzultzen zion, testu berriua hartzean, talde guztiei helaraziz.

Taldekoen zuzenketak koordinatzaileak jaso eta oinarrizko taldekoei helarazten zizkien, testu berriua prestatzeko. Testu berri hau koordinatzaileak taldeko guztiei eta "irakurleak" izenekoei bidaltzen zien.

Testu berriuari egindako zuzenketak oinarrizko taldekoei helarazten zizkien koordinatzaileak.

Testu ber-berritua jasotzen zuen koordinatzaileak eta batzarre orokorrerako prestatzen (urtean bi aldiz egin izan dira batzarre orokorrak, astebeteko txandak eginez).

Batzarreetan, batzuetan (gehienetan) testu osoa berrikusten zen, batzuetan sakonago, besteetan lasterrago. Beste batzuetan (oso gutxitan) oinarrizko taldeak onartu ez zituen zuzenketa-proposamenak bakarrik ikusten ziren batzarreetan.

Batzarreetako prozesua, denborarekin, lasterragotu egin zen, onarturiko irizpideak pilatzen zihoazen neurrian.

Dena den, azken bi urteetan [1992-1993] hasieran behin-betikotzat emandako testuak berrikusi beharra ikusi zen; irizpideak aldatzen eta aberasten joan baitira prozesu osoan zehar.

Bestalde, azken urtean, estilo bateratzeko, bi idazle famaturi testu osoa irakurtzeko eskatu zitzaizen. Baina ez ziren animatu; hartara, azken irakurketa hori koordinatzaileak hartu zuen bere gain; irakurketa honetatik sortutako proposamenak ere batzarreetan erabaki ziren (41).

Leizarraga eta laguntzaileen arteko itzulpen-lankidetzak nolakoa izan zen ezer ez dakigula, edo Bonaparte eta bere lankideen arteko Biblia la-

---

(40) Dakigunez, laster agertuko da itzulpen-arazo metodologikoen kasu honetan izan duten irtenbideaz berri zehatzagorik. Hemen, aurkezpenetik zera jasoko dugu (XI. or.): "Bigarren, helburu komunikatiboa. [...] Hain zuzen ere, helburu zehatz horrek eragin dio itultzaile-taldeari, traduktologiaren aldetik, joera jakin bat hartzera, Bibliaren itzulpengintzan, munduan zehar, jadanik aski errotua dagoen joera hartzera: baliokidetasun dinamikoa, funtzionala".

(41) Aipaturiko "Elizen arteko Biblia. Lan-iharduera eta itultzaileak".

nak nola eraman ziren jakiteko hainbeste albiste falta zaizkigula, interesgarri gertatzen da kasu honetan ohar hori. Eta, urtetan ehundaka orrialde hizkera estandarrean zuzenduta gero, gure garaiekin datorren beste ohar hau: “azken momentuan Euskaltzaindiak argitara emaniko gomendioetara egokitu behar izan du koordinatzaileak testu osoa”. (Jainkoaren Hitzaren eta herriaren hizkuntzaren zerbitzuan!).

Hizkeraren arazoak ezin baztertuak dira, noski, honelako lanetan, baina elizarteko itzulpen biblikoetan larriagoak ere izan litezke exegesiarekin lotuta datozen katramilak. Hala ere, horrelako tirabirarik ez da bidean suertatu, esaten zaigunez.

## 2.5. Edizioaren azken ardurak

Taldeak eta kanpoko lankideek egitekoa aurrera zeramaten bitartean, J. de Ward, C. Buzzetti, J.M. Rementeria eta D. Amundarain Setien Gotzainarekin bildu ziren, honi lanaren berri emateko asmoz (1988ko abenduan): adostu zenaren arabera, itzulpen guztietatik bi ale bidaliko zitzaizkion gotzainari, hierarkia katolikoa ere bere garairako oniritzia emateko prestatuz joan zedin (42). 1990eko udan, lan-parte handi bat haren eskuetan zegoen, eta 1992ko udazkenean edo, erabaki samarrik Biblia hau elizarteko koedizioan kaleratzea (43).

1993ko udaberrian bukatu zen *Elizen arteko Biblia* osoaren euskal itzulpenaren testu-prestakuntza. Eta ondoren, Biblia itzulpenaren mol-

---


(42) Jakin ahal izan dugunez, bete zen borondate hori, eta Gotzaindegiak Itun Berria bederen eman zion exegeta katoliko hautatu bati (J. Apezetxea izan zela, uste dugu), lana aztertuz joan zedin. “Itun Zaharraren azterketa –E. Etxezarretari zor diot ohar hau– itzulpen-taldean exegesiari gehien arduratu zen Ramon Irizarri eskatu zitzaion; Gotzaintzat itzulpen-lanaren balorazio bat egin zezala eskatu zitzaion, haiek beren oniritzia eman ahal zezaten. R. Irizarrek 1992ko abenduaren 29an eman zion Setien Gotzainari bere txostena”.

(43) E. Etxezarretak pasatu dizkidan oharren arabera, hauek dira datu zehatzak: 1992, martxoak 31: Donostiako Gotzaindegian egin zen Batzarra, Bibliaren itzulpen-taldekoek eta protestanteek eskatuta. Setien Gotzainak ez zuen egotarik izan; beronen ordez J. A. Pagola, Bikario Nagusia, egon zen. Eta, gainera, Manuel Jimbachian (Strasburg), Jose Luis Andavert Escriche (Madril), Dionisio Amundarain eta E. Etxezarreta. Aztergaia: Itzultzaile eta protestanteen izenean hitz eginez, Bibliaren itzulpena zertan zen berri eman zen, eta euskal Elizbarrutietako Gotzainek argitalpenean parte har zezaten proposamena egin. 1993, ekainak 16: Euskal Elizbarrutietako Gotzainei, Gasteizen zuten ohiko Batzarrean, *Elizen arteko Biblia* argitaratzeko proiektua aurkeztu zitzaion. Erabakia: Ontzat eman zuten Gotzainek proiektua, eta argitalpenean protestanteekin batera erdibana parte hartzea erabaki zen, Baionako Elizbarrutia barne (1993.06.25). Gotzainen izenean argitalpenaz arduratzeko Eustasio Etxezarreta izendatu zuten. 1993, urriak 22: Gotzainen izenean Setien Gotzainak, eta Biblia Elkarte Batuen izenean Jose Luis Andavertek, argitalpenari dagozkion xehetasunen dokumentua izenpetu zuten: «Convenio de coedición para la publicación de *Elizen Arteko Biblia*».

diztegiko lanaren eta argitalpenaren xehetasun guztiez arduratzeko batzorde bat eratu (44).

Elizarteko lan hau —orain, eta ez lehenago— azken bururaino eraman ahal izateko bideak samurtu dituzten aldeko orokorrenak laburtu behar balira, agian nagusienak zerak izango lirateke: Kristau protestanteengan (45) —eta katolikoen artean ere (46)— ekumenismoak urratutako bidea (47), euskal Protestantismoaren historiaren berreskuratzea (48), Euskal Herriko Elizen arteko ezagupide hobea eta, azkenik, euskara estandar batean eta Euskal Herri osorako originaletatik zuzenean egindako itzulpen moderno baten premia.

Horrek guztiak eman du, ba, bere emaitza gurean ere: *Elizen arteko Biblia*.



(44) Bi etxe argitaldarien aldetik (Bibli Elkarte Batuak eta Euskal Herriko Elizbarrutiak) ordezkari bana izango ziren Batzordean (J.L. Andavert eta E. Etxezarreta), eta Elizen Arteko Biblia Elkartearen aldetik (lantaldeen izenean, alegia), beste bi lagun (J.M. Rementeria eta D. Amundarain).

(45) Elizen Kontseilu Ekumenikoa bere iturrietan ezagutu nahiko lukeenak, argitalpen erosoak du gure artean ondoko hau: VISCHER, L. (ed.) (1972): *Textos y documentos de la Comisión «Fe y Constitución» (1910-1968)*. Madrid: BAC (337).

(46) Ekumenismo katolikoaren doktrina-oinarriak ezagutzeko: PERARNAU, J. (ed.) (1965): *Decreto sobre el Ecumenismo* [Vatikano II.arena, alegia]. Castellón de La Plana. Dokumentu honen jaiotunea ezagutzeko, ik., adibidez: FESQUET, H. (1967): *Diario del Concilio*. Barcelona: Editorial Nova Terra. (Aurkibideetan: 1296-97. or.).

(47) Ekumenismoaren historia, bere alde doktrinalean bereziki, honako obra honetan ikus daiteke: THILS, G. (1965): *Historia doctrinal del movimiento ecuménico*. Madrid: Ediciones Rialp. Biziki iradokiorra gertatuko zaio irakurleari beste hau: CONGAR, Y. M.-J. (1967): *Cristianos en diálogo. Aportaciones católicas al Ecumenismo*. Barcelona: Editorial Estela.

(48) Ez da horren adibide txarrena hau: OLAIZOLA, J.M. (1993): *Historia del Protestantismo en el País Vasco*. Pamplona: Pamiela.

### 3. EGINDAKO BIDEA: EGITEKOAK

Dagoeneko irakurleak ikusi duenez, orrialdeok ez dira izan *Elizen arteko Biblia* hau bururaino eramateko egin diren lanen aurkezpena baik; ez dut emaitza literario eta zientifikoaren kritika egiteko asmorik izan. Horretarako gaitasunik ezean, zilegi izan bekit, bestalde, azken oharren bat edo beste egitea.

Gure lehenengo Biblia itzulpen ezaguna (1571) erlijio-gerren artean sortu zen —taldean lan eginez, gainera— eta agintari kalbindarrek (Paueko Sinodoak, Joana Nafarroako Erreginak) sustaturik egin zen, zortzi urteko lanaren ondoren. Une historiko hartako kristau fededun batzuen interes kontrajarrien artean baina beti Hitzarekiko maitasun suharrari jarraiki gertatu zen hori (Leizarragaren hitzak irakurri besterik ez dago horretaz ohartzeko).

Oraingoan ere interesik ez da falta izan, Hitzarekiko amodiorik ere ez, eta langile finen iraupen setatia, hamazazpi urtetan zehar egitekoari eusteko. Lehen orduko sustatzaile eraginkorra Bibli Elkarte Batuak izan dira, eta katolikoaren bizkar joan da, batik-bat, eguneroko lanaren zama. Elkarren kontrako lehian baino elkarren aldeko ahaleginean egin dute aitzina, bururaino. Azkenik, parte izan diren Elizetako buruek elkar-hartuta jarri dute lana kalean. *Elizarteko* obra hau, halakoxea da zinez.

Leizarragak euskaldun guztien ahalik ulerpen errazena bilatu zuen bezala (*ahalic guehiena guciey adi eraciteari iarreiqui içan gaitzatza*, zioen hark), oraingo itzultzaileok ere guztiekiko hizkuntz hurbiltasuna bilatu dute euskara batuaren bidetik. Hizkuntzaren normalkuntza estandarri laguntzeko ere egin da itzulpen hau, espreski. Beldur izan zitekeen exegesi-gatazkarik ez da izan, baina “bai, ordea, euskararen normalizazioaren aldetik. Puntu asko eta asko aztertu behar izan dira, bai bakarka, bai batzarreetan”. Ahalegin honekin, eliz euskara (49) epe historiko berri batean sartzen da, juxtu Sinodaletatik zetorren euskalkiekiko ardura praktikoko hertsia goari gaina hartuz eta Leizarraga Artzain protestantearen edo Axular apaiz katolikoaren hizkuntza batasun-kezka zabalagoa berreskuratuz (50).

Edizioak izan duen euskalkiarteko lankidegoagatik, Elizengandik lortu duen onarpen-babes instituzionalagatik, itxuraz eta hobekuntza-asmoz (izango) duen kalitateagatik, benetan Euskal Herri osoko Biblia bilaka daiteke hau (nahiz eta Liturgi zeregin mintzatueterako besterik ere

(49) *Eliz euskara*, diot: eliz eginkizun eta kulturako euskara, eliztarrek nonahi edo zernahitan erabil dezaketena baino.

(50) Ez ditut biltzen horren testu lekukoak, baina gogoan har Kalagurriko Arau Sinodalak (1600) eta bi idazle aipatuen hitzaurreak.

izan). Merezimendu handiko beste lanen ondoren, urrats hau ere eman beharra zegoen, hizkuntzaren normalizazioaren mesedetan ezezik, baita kultura erlijioso moderno bizi baten onetan ere.

Orain gutxi, filologo baten lumatik prentsaratu da EHUrako Teologi Fakultate baten eskea (51). Erran gabe doa, gure artean azken hamarkadetan gertatu den Teologiaren latinetik gaztelaniaratzek, Euskal Herrian euskararatzea ere izan beharko lukeela; baina hori ezingo da egin, aldi berean euskarazko Teologi hizkera-normalizazioak heldutasun bat lortu gabe. Jada eman da pausoren bat edo beste norabide horretan (52); hala ere, urrun eta eskas geratu dira —segidarik ez dute ia izan— 1960-1970. hamarkadetako euskarazko gogoeta-lan teologikoak. Batez ere, gure kultura erlijioso moderno euskalduna jaiotzeke dago, eta zer esanik ez, euskaraz lanean lihardukeen Teologi irakaskuntza. Teologia(ren) hau Euskal Herriko kristau Elizek gure herriaren kultur normalizazioari zor dioten baliozko eremua da.

*Elizen arteko Biblia* jatorrizko hizkuntzetatik serioski itzuli ahal izan duen lantaldeak bide berriak urratzeko lain adore eta iraupen erakutsi du, eta, gainera, ondoko beste oinarri eta hedapenatarako tresna baliosa sortu digu. Hierarkiak ere ongi ulertu du behetik etorri den ekimen horren esanahia. Espero liteke, ba —eta denon onetan eskatu egin beharko litzaieke Euskal Herriko Elizei— ondoko ekintza berriak ere sustatzen hasteko, beti ere euskarazko kultura kristauak, orokorrean, eta prezeskia-gu euskarazko Teologi irakaskuntzak aurrera egin dezaten.

Euskal Herriko eguneroko eliz errealitate euskaldun zabalenera etorriz, beste oharkizunen bat. Argitalpen honek erakutsi du eliz indarrak —aski ahulduta daudela ere— elkarlanean noraino hel daitezkeen. Lezio ona izan da *Elizen arteko Biblia*, baina ez bera bakarrik, baita hemen bidenabar aipatu dugun beste lan bakan batzuk ere. Estimagarria eta ederra da, noski, elizen arteko lana, baina elizetako giza kultur indar gehienak eta emankorrenak batez ere Eliza katolikoan daude Euskal Herrian, eta agian, garaia da, Elizbarrutien arteko eta berorien eta erlijiosoen arteko lankidetzak eratua antolatzeko: kristau kulturaren onetan, hizkuntzaren faboretan.

Eraikuntza berri horren lehen harrietako bat jarrita dago hemen aurkeztu dugun argitalpen oparo honekin: egiteke dauden zereginetarako ez da lantegi-eredu txarra berau, horri segida emanez eta bertatik eta beste irakasgunetatik hasita garapen hobeak sustatzeko.

(51) EGUZKITZA, A. (1994): "Teologia-Fakultatea Euskal Herriko Unibertsitatean noizko?", in: *Egunkaria*, 1994-06-03.

(52) Adibide gisara gogora Liturgi itzulpenak edo *Erljioa. Hiztegia* (1987, UZEI, Donostia: Elkar).